

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure produktuaren funtsezko baliabideak hurrengoak dira:

Lehenik eta behin, **baliabide fisikoak** kontuan hartuta, lan egin ahal izateko lankide baten garajea erabiliko dugu, bertan bilduko gara enpresako kideak TouchBand-ak ekoizteko. Lokal horretan beharrezko materiala edukiko genuke produktua eta webgunea aurrera eramateko. Hala nola, 3D inprimagailua pultserak egiteko, ordenagailua, TouchBand egiteko materiala ( 3D inprimagailluarentzako goma, botoia...)

**Baliabide intelektualak** kontuan hartuz, TouchBand-aren diseinuak egiteko programa informatiko bat beharko dugu eta baita TouchBand-aren aplikazioa sortzeko ere.

Bestalde, **segurtasun baliabidea** eskainiko ditugu. Gure produktuaren bitartez erosleak seguruago ibiliko dira eta zerbait gertatuz gero botoiari eman eta laguntza izango dute.

Enpresaren **finantza baliabide** bakarra pultserak saltzea izango da eta horrek izango dituen irabazi guztiak enpresarentzako izango dira.

